

# KIROL ESKOLAK 2022 / 2023

## IZEN-EMATE OROKORRA: DATAK ETA PROZESUA

### AURREZ IZEN-EMATEA

EKAINAREN 6tik 10era

1. **Soil-soilik aplikazio mugikor bidez: «RESASPORTS».**

(Xakea: Klubaren bidez, 699559604 zenbakira deituz)

Honako datu hauek emango dira:

- Ikaslearen izen-deiturak.
- Telefonoaren zenbakia (mugikorra eta finkoa)
- Helbide elektronikoa.
- Legezko tutorearen izen-abizenak
- Zein taldetan eman behar duen izena (lehentasun ordena adieraziz)
- Ikaslearen NANA (baldin badu).
- Ikaslearen jaioteguna.
- Erroldatze herria

2. Taldeak behar bezala eta behin betiko osatzeko, eskatu nahi dizugu **ez dezazula aurrez izena eman joan ezin zaren edo joan nahi ez duzun taldeetan.**

3. **Pertsona bakoitzeko, 5 taldetan bakarrik** aurrez izen-ematea onartuko da.

Talde osoak aurrez izena eman daiteke plazarik ez duten taldeetan ("beteta"), eta aurreinskripzio hori ez da kontuan hartuko pertsona bakoitzak gehienez egin ditzakeen 5 aurreinskripzioetan. Informazio hau argitaratu ondoren plaza libreak sor bailitezke.

Baliozko aurreinskripzioen kopurua gaindituz gero, Kirol Patronatuak ezabatu egingo ditu egindako azken aurreinskripzioak.

4. Talde batean baino gehiagotan izena ematen baduzu **lehentasun ordena adierazi** beharko duzu: **1etik** (gehien interesatzen zaizun taldeari) **5era** (gutxien interesatzen zaizun taldeari).

Lehentasun-ordenarik ematen ez bada, Kirol Patronatuak esleituko du, aurreinskripzioen hurrenkerari jarraituz. Lehentasuna emango zaio egindako lehen inskripzioari, eta horrela hurrenez hurren.

5. **Plaza libreak:** Eskura dagoen plaza kopurua nabarmen alda daiteke, hainbat arrazoi dela medio: azken orduko bajak, osasun-neurriak eguneratzea eta bestelako inguruabarrak.

6. Aurrez izena emateko epea bukatzean: eskaera txikia duten taldeak baliogabetzen ahal izanen dira. Patronatua harremanetan jarriko da kaltetuekin, beste talde batzuetan izena eman dezaten.

7. Aurrez izen-ematea ezinbesteko tramitea da, baina ez du bermatzen plaza lortzea.

### ONARTUTAKO PERTSONAK ETA ITXARON-ZERRENDAA

EKAINAREN 17an

1. Eskatzaileari aplikazio mugikorraren bidez jakinaraziko zaio plaza lortu duen edo ez. Posturik baduen edo itxaron-zerrendan dagoen jakinaraziko dion mezua jasoko du.

2. Kirol Patronatuak beretzat gordetzen du plazen esleipena baliogabetzeko eskubidea, baldin eta akatsen bat atzematen badu erroldatzea, adina, zozketa, eta abar egiaztatzen dituenean.

3. Bete gabeko lekuak geratzen ez diren kasuetan, **persona bakoitzak parte hartu ahalko du jarduera batean**. Hainbat taldetan plaza lortuz gero, Kirol Patronatuak baja emango dio ikasleari lehenetasunik txikiena duten taldeetan.

4. **Plazak zozketaren bidez emango dira**, eskabideen kopurua lekuen kopurua baino handiagoa den taldeetan. **Burlatan Erroldatuak lehenetasuna** izango dute **erroldatuak ez** diren pertsonen aurrean.

Atletismo eskolan, Atarrabian eta Uhartan erroldatutako pertsonak jotzen dira erroldatutako pertsonatzat.

## **ORDAINTZEA - PLAZA FORMALIZATZEA**

**EKAINAREN 17tik 30era**

1. Egiaztatu plaza eman zaizula, aplikazio mugikorraren bidez onartua zaudela.
2. **Klub bakoitzaren kontu zenbakian, ordainagiria** Klubaren posta elektronikora **bidalita 06/30era arte**. Onartutako ikasleei kontu-zenbakia emango zaie aplikazio mugikorraren bidez.
3. **Kontzeptuan ikaslearen izen-deiturak jarri behar dira**.
4. **Dagokion epean ez ordaintzeak plaza galtzea ekarriko du**.
5. Ordaintzeko epea edo plaza formalizatzeko epea amaitzean, taldeak ezabatzen ahalko dira, baldin eta behar adina jenderik izena eman ez badu. Patronatua harremanetan jarriko da kaltetuekin, behin betiko osatzen diren taldeetan parte har dezaten, baldin eta plaza librerik badago.

## **DERRIGORREZKO KUOTAK**

**BURLATAN ERROLDATUAK 100,00 €**

**BURLATAN EZ-ERROLDATUAK 150,00 €**

1. Ez da kuotarik itzuliko kasu hauetan izan ezik:
  - 1.a. Behar bezala justifikatutako arrazoi medikua edo,
  - 1.b. 2022-2023 denboraldirako proposatutako entrenamendu-ordutegia betetzeko ezintasuna.
2. Berritzea bi ordainketatan egingo da, hurrengo taulan jasotako kopuruen eta daten arabera. Garrantzitsua: nahi dutenek ordainketa bakarria egin dezakete maiatzaren 17tik 30era.

<b>Derrigorrezko kuota</b>	<b>Guztira</b>	<b>1. ordainketa (05/167ik 06/30era)</b>	<b>2. ordainketa (09/01etik 09/11ra)</b>
Burlatan erroldatutakoak*	100 €	50 €	50 €
Burlatan erroldatu gabekoak	150 €	75 €	75 €

\* Atletismo Kirol eskolaren kasuan Huartan eta Atarrabian erroldatutakoei ere aplikagarria da.

3. Gainontzeko klubek eskatzen dituzten diru ekarpenak borondatezkoak izanen dira. Diru hori burlatako Kirol Patronatuak estaltzen ez dituen gastuak ordaintzeko erabiliko da betiere.

4. **Obari emandako kuota (Burlatan erroldatuak daudenentzat soilik):**

4.a.- **Eskaera egiteko epea: 2022ko irailaren 30era arte.**

4.b.- Ikasleei informazioa aplikazioa mugikorraren bidez emanen zaie.

# INFORMAZIO GEHIGARRIA

1. **JARDUERAN IRAUPENA:** 2022/09/12tik 2023/05/26ra. Eskola-egutegiari jarraituz.
2. **ALDAKETAK:** Kirol jardueren eta ordutegiaren eskaintza partzialki edo erabat alda daiteke edozein unetan.
3. **ASEGURUA ETA OSASUN-AZTERKETAK:** Gomendagarria da izena emandakoek aurrez osasun azterketa egitea edota medikuari horren berri ematea edo kontsulta egitea. Herritarraren kirol-jarduera orokorraren ondoriozko osasun-arreta sektore publikoko osasun-aseguramendurako erregimenaren ohiko prestazioa da eta/edo beren borondatez duten aseguru pribatuarena. Horrenbestez, Kirol Patronatuak ez du bere gain hartuko prestazio horrek eragiten duen gastua.
4. **DATUAK BABESTEIA:**
  - \* **Arduraduna:** Burlatako Udal Kirol Patronatua.
  - \* **Helburua:** Kirol jardueren kudeaketa, kirol eskolen kudeaketa barne.
  - \* **Datuen jakinarazpena:** Eskolako zuzendaritza teknikoaz arduratzen del Kirol Elkarteari.
  - \* **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, baita beste eskubide batzuk ere. Horretarako, udal-bulegoetara edo [dpd@burlada.es](mailto:dpd@burlada.es) helbide elektronikora jo behar du.
  - \* **Informazio gehiago:** Pribatutasun Politika-Burlatako Udala.
  - \* **Zerrendak argitaratzea:** ez da zerrendarik argitaratuko. Informazio guztia «Resasports» aplikazioaren bidez kontsultatuko da.